

ITZARRI BGAE

Sozietatearen izena

Itzarri – Entidad de Previsión Social Voluntaria

IFK

V01373885

Izaera

Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak

Kontabilitate-araubidea

Pribatua.

Aurrekontu-araubidea

Gutxi gorabeherakoa.

Sorrera

[2004ko uztailaren 27an Jaurlaritzaren Kontseiluak](#) entitatea eratzea erabaki zuen eta Estatutuak eta dagozkion Prestazioak erregulatzen dituen Araua onartzea. 2004ko uztailaren 30ean Lan eta Gizarte Segurantza sailburuordeak emandako 125/2004 Ebazpenaren bidez, Itzarri BGAEren Estatutuak, Prestazioen Erregelamendua eta Txosten Ekonomikoa onartu ziren, eta Euskadiko Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeen erregistroan inskribatu zen 260-A erregistro-zenbakiarekin.

Sail-atxikipena

Herri Administrazioa eta Justizia.

EJSN

6512 Bizi aseguruak ez diren aseguruak

Helburua eta xedeak

Erakundearen helburu soziala da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionalaren zerbitzuko langileek egiaztatutako prestazio publikoak osatzea, langileak erretiroa hartzen duenean edo ezintasun iraunkorra, heriotza edo epe luzeko langabezia gertatzen denean. Jardun-eremua Euskal Autonomia Erkidegoa izango da.

Sailkapena kontabilitate nazionalen

Finantza-erakundeak.

Mutua-fondoa

30.000 €

2012ko abenduaren 31n dagoen Mutua Funtza, Eusko Jaurlaritzak entitatea eratu zenean bazkide sustatzaile gisa jarri zuena da, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruz indarrean zegoen araudiak ezarritako gutxieneko zenbatekoa estaltze aldera, eta ez da bazkide eta onuradunen eskubide finkatuen parte.

Bazkideak

Gaur egun, 90.000 bazkide oso baino gehiago ditu BGAEak.

Gobernu-organoak

Batzar Orokorra da gobernu-organo gorena. Guztira 100 kide ditu, 50 bazkide sustatzaileek izendatuak eta beste 50 zentral sindikalek izendatuak.

Gobernu Batzarrari dagokio erakundearen zuzendaritza eta ordezkaritza. 16 kide izango ditu, 8 bazkide babesleen ordezkariak eta beste 8 bazkide osoen ordezkariak. Batzar Orokorraren aurrean erantzungo du.

Ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	555.54 mila €
Ondare garbia	411 mila €
Ekarpen definituko gizarte-aurreikuspenari lotutako inbertsioen diru-sarrerak	132.442 mila €
Batez besteko langile-kopurua	8

Sozietatearen helbidea

San Antonio, 2 - 01005 Gasteiz (Araba)

Webgunea

www.itzarri.eus